




# GAZTETARZÜNA

Doinua: Aberastarzün izigarria

Neurria: Lau puntuko handia (ip) / Zortziko handia (hg)



Aetz Etxart Sarasola

- 1** 18 urte beterik egün aintzinean hainbat mündü **berri** emozioneen gora beherak zonbat nigar eta **erri** ezagütza eta sentsazio ezezagünez **egarri** adin hori beita oroentako libertatearen **ütürri**.
- 2** Autoarekin bidetan gainti üdüri giren **imortala** etxea non güni ahatzerik bizi nomadak **bezala** aitamekilan kexaldi franko beti ezin konpont **behala** bena oroekin onsa joaiteko egitez egin **ahala**.
- 3** Nolakoa niz, ni nor ote niz zer da ene **eginkizüna** pentsa ta pentsa бүрүan üngürüka galto oroen **oihartzüna** ohartü arte ez dela beti bizia **koloredüna** zonbaitetan zelüa urdina bestetan gaüa **ülüna**.
- 4** Bakotxak atzamaiten beitügü gütan zerbait **berezia** ahatze gabe nuntik jin giren ta zer dügün **ikasia** ohartü arte entzün behar dela gure barne **poesia** ahal bezain irus izatez beti llabürra beita **bizia!**

